

ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



UMANDI: Euskalgintzaren aitizindaria

BEGIRADA BEREZIAK

*Dupont, Cartier, Gianfranco Ferré,
Giorgi Armani, Vogue, Ducci, Dunhill,
Lavin, Reporter, Christian Dior*

*Halako emakume estiloari, holako begirada estiloa.
MULTIOPTICA Sen DUCCI bilduma berri eta eksklusiboa.
Eredurik erakargarrienak. Joerarik egungoenak.
Diseinu edergarrienak. Zure begientzat
bakarrik, MENDIA OPTIKA bakarrik.*


MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Mod. 733



Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.



NON - ZER

4. Bertsoak
5. Argazkia albiste
6. Kalea mintzo
8. Bazenekien...?
9. Erreportaia:
Arabako Agiritegia
12. Atzoko eta gaurkoa
13. Elkarrizketa:
Bingen Mendizabal
16. Umandi gogoan
18. Haurrak
20. Kirolak:
Futbol-Sala: Luminosos Regui
24. Liburugintza
26. Kultur Agenda
28. Denborapasa
29. Sukalde Txokotik
30. Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Oztopo guztien gainera...

heziketa euskalduna izanik eta euren burua abertzaletzat eukita ere, erderara jotzeko ohitura dutenak larregi daude.

Bagarek antolatzen zuen hitzaldia –aldeztatik iragarria– hastear gundenean, emakume bat etorri zitzaigun protestara: «*Yo en vasco no entiendo nada*» errepikatuz...

Gasteizko Udaletxean jestio bat egitera gindozela «hobe dugu erdaraz egitea, zerbait lortu nahi badugu» esan zidan lagunak. Bere beldurra ondotox ulertu arren, «egunon» hasi ginen eta gure pozarako euskaraz erantzun ziguten...

Haserre bizian zetorren hura, zeren eta irakasleen arteko bilera hartan erdaldun bakarra «errespetatzearen» erdarara jo baitzuten denek...

Antzeko egoerak soberan ezagunak ditugu Arabako euskaldunok. Batzuetan besteek errespetatzen ez gaituztelako. Beste batzuetan, geu ere –errespeto ezak etsita edo– gure eskubidea lotsarik gabe esijitzeko beldur garelako. Horregatik, hemen euskaraz bizitzea gehienetan «mirari» bihurtu zaigu.

Biztanleriaren %5,94 euskalduna izanik gure arteko sakabanaketak euskaraz egiteko aukerak murrizten dituela ezin dugu ahaztu.

Gainera, euskara defendatu behar luke-tenek –instituzioez ari naiz– ez dute oso joera txalogarria agertzen; horrez gain,

Guzti honengatik egoerak goibel samarra dirudien arren tarte eguzkitsuak ere aurki daitezke. Horrela, ekintza euskaldun ezberdinetan (hitzaldiak, ikastaroak, mendirako irteerak, ilargi betearen xarman-tasuna gozatzeko txirrindula-martxak, eta abar) parte hartzeko gero eta aukera gehiago dugu.

Beste alde batetik, hurrengo zera komentatu nahi nuke: euskaraz bizi nahi badugu, momentuz militantzia beharrezkoa bada ere, beste bide batzuk hartzeko garaia delakoan nago. Hots, krisialdiari aurre egiteko eta instituzioek jarritako aitzakiak deuseztatzeko euskal lantaldeak sortzea egokia litzateke, hain beharrezkoa den begiralea, esate baterako...

Horrez gain geure buruaz ziur egon behar gara eta horretarako euskararen historia geure herrialdean ondo ezagutzea ezinbestekoa da, euskararen aurkako jarrerak adierazten dituztenei erantzun zuzena emateko gai izan gaitzen.

Eta datorrena datorrela, ez etsi inolaz ere, zeren oztopo guztien gainera...

Arabak bagare!

Itziar De Blas

Bagare euskal tokiaren arduraduna

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92

GEU elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:** Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de, Mendibil, Olatz Irizar **Komikia:** Iñigo Sarasola **Maketazioa:** Blanka Agiriano, Alex Badillo **Publizitatea:** Martin Rezola **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzueta, Josu Txabarri **Kolaboratzaileak:** Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati) **GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik**



BEÑAT RAZKIN

Asignaturarik politena

I

Institutura joan beharra hainbat gauza ikastera Aldi batzutan «pira» eginda ez gara joaten klasera Asignaturak gehiegi dira zoritxarrekoak gera Mate, gizarte, ingelesa ta geologia, euskera Etika eta soinketa ere, eta gainera erdera

II

Gure klaseak euskaraz dira egia noa esatera Nahiz erabili erdal hizkuntza euskararekin batera Asignaturik gustokoena behar dut orain aukera Nire ustetan atera behar da euskera hizkuntza kalera Horregatik da oso larria euskeraren egoera.

nikatzeko bide errez eta azkarra sortu nahian, Gizakia Helburuk zerbitzu berri bat ipini du lanean, **Informazio Telefonoa** delakoa.

Telefono honek bete nahi dituen helburuak, zerauek dira:

Honelako arazoak dituztenei edo bere ingurukoei harrera zuzena ematea.

Programara hurbiltzeko bide berri bat ematea, pertsonaren intimitatea errespetatuz.

Arazoaren muinaraino ahalik eta azkarren iritsi nahian, kaltetuen eta programaren arteko zubia eraiki nahi dugu.

Jose Luis ALONSO

Gizakia Helburuko zuzendaria

**Informazio
Telefonoa**

14 59 88



Postariak ekarriak

Gizakia helburu

Gizakia Helburu heziketa eta sendakuntzarako Programa duzue. Ez du inolako alderdi politikorekin loturarik, ez da konfesionala eta dirua irabaztea ez da programaren helburua. Araban 1.987. urtean jaio zen, eta helburua drogazaleak bergizarteratzea eta aldi berean bere familiekin lan terapeutikoa egitea da.

Drogaren arazoarekin interesaturik daudenekin edo kaltetuekin komu-



HEMEROTEKA

- ❑ «Euskaldun zaharrek uste dute den-dena dakitela, baina haiek gramatika ikasi beharra daukate»

Andoni Urrestarazu
«Umandi»

- ❑ «Jendeak, zinemara doanean, zerbait ezberdina ikusi eta egunerokotasunari ihes egin nahi dio»

Juanma Bajo Ulloa
(Zine zuzendaria)

- ❑ «Zadorraren egokipenak ibai honek duen basogune handi bakarrari kalte egingo lioke»

Patxi Heras
(Biologoa)

- ❑ «Hogeitabi mila pertsona egon dira Principal Antzokian Antzerki Jaialdia ikusten»

Udaletzeko Kultur Arloak

- ❑ «Seksoa espejismo hutsa izan da komiki-argitaratzaile askorentzat»

Ernesto Murillo
(Komikigilea)



ELKAR

FAGOR



**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



N

ork ez du –behin
besterik ez bada,–
kotxerik gabeko hiri
batekin ametsik egin.
«Utopia hutsa!»
esango du norbaitek.
Izan ere, oraingoz
bizikletak ezin
izango du kotxearen
lekua hartu, are
gutxiago, Udaletxean
bizikleta oinezkoen
esparruan
erabiltzeko debekua
egia bihurtuko balitz.
Ikusteko dago!



2 GABONETAKO SASKIREN ZOSKETA

Gabonak datozela eta,
GEU elkarteak
bi saski ikusgarriren
zozketa egingo du:
bata elkarteko
bazkideen artean eta
bestea **GEU**
GASTEIZko irakurleen
artean.



EGUBERRIETAN
ONDO P ASA!



ALTAIR
kafetegia
Gasteiz etorbidea, GASTEIZ
Tel. 22 81 91 • Fax 13 06 91



JATETXEA ZEURE ETXERA ERAMANGO DUGU
CATERING ZERBITZUAK



Bazkariak
Ezkontzak
Urtemugak
Ospakizunak
Lunch
Buffet
Bataioak
Jaia

Pedro Asua, 35, Gasteiz
Tel. (945) 24 64 09, Fax (945) 13 06 91
Villa Lucia • Biasteri (Araba)
Tel. (941) 10 00 32

Zer deritzozue...

hirian bizikleta erabiltzeari ?

Duela gutxi prentsaren orrialdeetan Gasteizko zentroaldean –oinezkoen esparruan– bizikletaz ibiltzea galerazteko asmoa plazaratu da. Ohi bezala kalera atera gara honen inguruko iritzi ezberdinak bildu nahian. Hona hemen erantzunak.

Bizikletaz ibiltzeko hiri egokia iruditzen al zaizu Gasteiz?

Oinezkoen esparruan bizikletaz ibiltzea galerazteko asmoaz zer diozu?



Igor Fernandez (Langabetua)

1.-Oso gaizki, errepidetik joanez gero, gidariak oihuka eta zala-partaka hasten dira. Gainera arriskutsua ere bada.

2.-Oinezkoa eta bizikletak errepidetik ibil daitezke. Badago txirringaz azkar ibiltzen den jendea, baina orokorrean bizikletek ez dute trabarik egiten. Bide gorriak egin beharko lituzkete oinezkoen esparruetan, hiri osoan egin behar ere.



Liber eta Zuriñe Aspe Unanue (ikasleak)

1.-Ez genekien espaloitik ibiltzea debekatu behar zutenik baina gaizki iruditzen zaigu.

2.- Bide gorriak kentzen ari dira eta hori gaizki dago. Horrela espaloiatik gaizki eta errepidetik gaizkiago. Bide gorri gehiago egin beharko lukete, zentroaldetik eta kanpotik ere. Orain gutxi dira.



Maite Mendiburu (Irakaslea)

1.-Gasteiz, lau den aldetik oso egokia da ibiltzeko, gustora ibiltzeko tokia da. Aldapa gutxi izaten da baina auto asko egonez gero beti arriskutzen zara pixka bat

2.-Ez dut batere gustoko jendea oinezkoen tokietatik ibiltzen denean, hori arriskutsua iruditzen zait. Errepidetik ibiltzearen aldekoa naiz guztiz. Bizikletak oinezkoen esparrutik ibiltzen direnean moles-tatzen dute. Haurrak, adibidez, ziztu bizian ibiltzen dira. Irtenbidea, halere, autoa gutxiago erabiltzea litzateke. Ohitura aldaketa behar da

GARNICA

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



**Jimmy
Balujera
(Komertziala)**

1.-Oinezkoen esparruez gain bizikletek ez dute alternatibarik, are gutxiago zentroaldean. Errepideetan trafiko gehiegi dago eta han txirrindularientzat arriskutsua izan daiteke.

2.-Bizikletek ez dute trabarik egiten, poliki eta segurtasun neurriak errespetatzen baldin badoaz. Zentroaldean bide gorriak egitea ezinezkoa da, gaizki aparkatuko lukete eta gainera ez dago horretarako lekurik. Bestaldetik, bide gorriak gaizki eginda daude, jende askori gustatzen zaio urtegi bizikletaz joatea baina ez dago



**Juan Maria
Linde
(Jubilatua)**

1.-Auskalo! Ni ez naiz nire auzunetik apenas ateratzen. Baina zergaitik ez?

2.-Niri berdin dit. Halere, errepidetik ibiltzea espaloitik baina okerragoa da. Bizikletaz dabilenak, kontuz ibiliz gero ez du trabarik egiten. Espaloian jende asko badago agian bai, bestela ez.



Lurdes Uriarte (Irakaslea)

2.-Zerbait irakurri dut baina ez zait batere gustatu hauen ikuspuntua: nolako istripuak egon diren txirrindulári eta oinezkoen artean azaldu, kotxe eta bizikleten artean egondakoak ahaztuta, hauek gehiago izanda ere. Arazoa ez da horrela planteatu behar. Gasteiz oso aproposa da bizikleaz ibiltzeko eta orain aproposak diren bideak debekatu nahi dituzte



**Nora Martinez
(Ileapaintzailea)**

1.- Ezetz uste dut nik. Trafiko handia dago. Hobe da Gasteiztik kanpo paseatzea

2.-Ez zait logikoa iruditzen. Badago batetik bestera bizikletaz ibili beharra duen jendea. Inor harrapatu gabe kontuz ibiltzearekin aski da. Bestaldetik bide gorri gehiago egin beharko lukete.



**Diego Esposito
(Langilea)**

1.-Hiri hau ez dago bizikletaz ibiltzeko prestatuta. Nik gaizki ikusten dut horretarako.

2.-Bizikletak traba egiten dute bizikletaz ibiltzeko moduko lekuren bat egon beharko luke. Leku hauetan jendea dabil eta bizikletak oztupo bihurtzen dira. Bizikletetarako bide bereziak behar dira, errepideak ere ez dira egokiak eta.

azkarprint

lehen **fas**

Cercas Bajas, 4

Tfnoa:

27 92 51

Fax:

25 42 10

Inprenta zure zerbitzura

- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak

Zerbitzu bereziak:

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak



Bazenekien...?

... San Migel eliza
1.181. urtea baino
lehenagokoa dela?

... Meritu handikoa
dela Juan Velazquez
eta Gregorio
Hernandez-ek
1.632an ezarri zuten
aldare nagusia?

... Mendeetan zehar
bertan egindako
moldaketek ia erabat
ezabatu dituztela
hasierako
eraikuntzaren
aztarnak?

... Eliza honetan
babesten dela
gasteiztarron
«zaindarisa» den
Andra Mari Zuriaren
kapera eta irudia?

... XIV. mendean jaso
zela gaur egun
ezagutzen dugun
eliza?

... Andra Mari
Zuriaren estatua
Francisco Etxanobe
mañariarrak landu
zuela 1.761ean eta
27.171 errealekin kostatu
zuela?

... Sarrerako tinpanoa
(XIV-XV) hiru zatitan
banatua dagoela,
horietatik bi San
Migelen bizitzaren
eszenek hornitua?

... Aipatu estatua
«Matxete» izeneko
aihotzaren hobitik
hurbil jarri zutela eta
1.788an eraman
zutela gaur egun
dagoen tokira?



BARNETEGIA - LESAKA

• URRATS GUZTIAK

ABENDUAK

23



Tfnoa: 28 89 22

Arabako agiritegi probintziala



Pasa den azaroaren 11an Arabako agiritegi probintziala ofizialki inauguratu zen. Unibertsitateko kanpusaren barruan kokatua dagoen agiritegi hau urte askotan zehar egindako lanaren ondorio zuzena da, eta hori ikus daiteke zehaztasun osoz eraikitako edifizio berritzaile honetan.

 **Benito Ginea**
liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

 **IZ TABERNA**
R A
ATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

 **CAFÉ PLATÓ**
Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ

pasatzen dira, bertan gordetzeko, harik eta edozeinek agiri hori behar arte.

“ **Artxibo historikoan XIII. mendetik honako agiriak aurki ditzakegu** ”

Gaur egun hiru ataletan banatzen dira agiriak: batetik, artxibo historikoa.

bertan XIII. mendetik 1930. arteko agiri guztiak daude; bestetik, artxibo administratiboa, Foru Aldundiak bere alor ezberdinetan sortzen duen dokumentazioa gordetzeko; eta azkenik, artxibo bereziak, familienak, erakundeenak...

Artxibo guzti hauek jendeari ondo heldu eta aprobetxamendua ateratzeko, edifizioak erakusketa areto eta hitzaldi areto bana dauka, liburutegiak eta ikasketa gelez gain. □



Camino Urdiain Agiritegiaren bultzatzaile kementsua



Emakume hau 1975. urtean hasi zen Arabako Foru Aldundian lanean, 1978. urtean Agiritegiko arduraduna izendatu zutelarik. Urte haietan Agiritegia nola zegoen gogoratzean irrifarre egiten du Caminok. Agiritegia Foru Aldundiko soto batzuetan pilatuta zeuden paper mordoxka batek osatzen zuten. Guzti hori urteetan zehar ordenatu ondoren eta informazio ugari bazeukan ere, Caminoren helburua ez zegoen beteta. Berak ez zuen nahi agiritegia elite intelektualera mugatzea. Horregaitik gogoz kontatzen digu Caminok hilabete baten buruan 3500 B.B.B.ko ikasle agiritegitik pasatuko direla, edota gabinete pedagogiko batzu martxan jarriko direla, historiako klaseak agiriez lagunduta eman ahal izateko.

Bere lanari esker Arabako edozein dokumentu ikasteko edo ikusteko aukera zabaldu zaigu guztioi. □

UDABERRIA
elkartea

•Euskaltegi Homologatua -Helduentzat -Ume eta gaztetxoentzat	•Musika eskola •Dantza
--	---

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

Ardatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

1.925 Andra Mari Zuriaren Plaza



Plaza honek 1.901an hartu izen orain duen izena. Lehenago, Gaztelako Plaza Zaharra zuen izena, baita Plaza Nagusia ere. Herriak, hala ere, «Plaza del sartèn» deitzen zion, edota «El Mentirón», huraxe baitzen gasteiztarren berriketarako topalekua. Egun, izen hori duen taberna bat dago bertan.

Urtetan, azoka egin izan zen plaza honetan. Gaur egun, hiriko erdigune nagusienetakoa dugu. Argazkietan aldaketak ikus ditzakegu. Goiko argazkian –1.925. urtean Guinea argazkilariak eginda– zuhaitzak, kioskoa eta azoka zituen ezaugarri. Ondoren erdiko monumentoa jarri, beranduxeago lorategiak eta duela gutxi Ibarrolaren eskultura. Guzti honek bestelako itxura eman dio.



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82

HEGOALDE
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 -
01005 GASTEIZ

Arabako historia karpitetan gordea



Agiritegiaren historia

Azaroaren 11tik aurrera Gasteizko Geografia-Historia eta Filologia fakultatearen atzean kokatua dagoen Arabako Agiritegi Probin-tziala ez da berria. Edifizio berri horretara heldu arte zenbait lekuetatik pasatu izan da Arabako dokumenta-zioa.

1505. urtean San Frantzisko Monastegian kokatuko zuten Agiritegia, ordurarte dokumentazioa kutxa batetan leku batetik bestera ibili ondoren.

1844. urtean gaur egungo Foru Aldundiaren egoitza eraiki zen eta bertan agiriak ehun urte luzez gorde ziren.

1943. urtean, gaur egungo Arte Ederren Museoa agiritegi bezala erosi zenean, bertara pasatu ziren artxiboak. Garai horretan, Egoitza hori museo bihurtu zen, hasiera batean Seminarioan egon ziren agiriak Foru Aldundiko egoitza berezi batzuetara pasatu zirelarik. □

Elite intelektual batentzat eginak diren lekuetara zokoratu ohi ditugu agiritegiak gehienok. Arabako Agiritegi Probin-tzialaren arduradunen filosofia nagusia guztiz kontrakoa da. Agiritegi honi askoz ere erabilpen zabalagoa eman nahi zaio, dokumentuak adierazgarriak baitira gela batzuetan izkutatutako egoteko. Arabaren historia isladatzen duten dokumentu eta artxibo horiek edozeinen esku egotea nahi dute arduradunek. Horrela izan dadin, edifizio berrian lehen mailako teknologia eta informatika darabilzkite.

Agiri edo dokumentu bat Agiritegira heltzen denean bide jakin bat urratzen du artxibatua gelditu arte. Leku itxi batetara dokumentazioa heltzen da, inolako ordenarik gabe. Gero, harrerako gela batetara eramaten da hor agiriak sailkatuak izan daitezen, oraindik ere landu gabe. Lehen fasea igaro ondoren klasifikapen gelara pasatu ohi da, eta hainbat karpitetan atal ezberdinetan sailkatzen da agiria. Karpeta bakoitza zein den ordenagailuen bidez transmititzen da, ordenagailuetan karpeten zenbakia eta bertan zer dagoen gordetzen delarik. Batzuetan agiriak nahiko ajeturik heltzen dira eta horretarako errestituzio tailerra dago; lehen mailako teknologiaz hornitua. Guzti hau gero ondoren, artxiboak deponetara

“Egoitza berria
lehen mailako teknologiaz
dago horniturik”

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69


SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

 **zalu**
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291

Bingen Mendizabal

irudien musikagilea



Duela gutxi arte bostgarren 'hertzaina' izateagatik ezaguna, zenbait euskal zinemagile gazteen filmeei musika jartzeaz aurduratu da Bingen Mendizabal azken boladan. Bingen Gasteizek musika arloan hasi zen mundu honetan bizi izan duen garairik emankorrenean. Orain, "Naiko" taldearen garaia atzean geratu da. Halaber Juanma Bajo Ulloaren azken laburmetraiaren musika konposatu zuenetik ere denbora dexente pasa da. Orain, ordea, Bingenen lana gero eta ezagunagoa da. Azken urte honetan lan eta lan aritu den arren, esperientzia arrakastatsu horren berri emateko tartetxo bat egin digu Bingenek.

URTEGI-ALDE
SAGARDOTEGIA

Urrunaga(Araba) Tfnoa: 45 50 67

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

«Zuzendari gazteek musikari garrantzi handiagoa ematen diote»

Bingen Mendizabalek ez du, antza, gizarteak jasaten ari den krisia somatzen. Berak aitortzen duenez, inoiz baino lan gehiago du orain. Juanma Bajo Ulloaren "La madre muerta"-n, Enrique Urbizuren azken filmea eta Alex de la Iglesiak egin duen bideo jolasean entzuten den musika berak egin du. Horrez gain Teatro Paraisoren "Zapatos Rojos" eta Geroa-ren "Las Amazonas del caballo" antzezlanetarako musika ere Bingenek konposatu du.

Hala ere gauzak ez direla beti orain bezain errazak izan azaltzen du musika-gileak. «Hasten zarenean jendea ez da zutaz fidatzen ez bait dute zure lana ezagutzen; baina Juanma Bajo Ulloaren 'Alas de Mariposa' egin nuenetik jendea nere lana aintzakotzat hartzen hasi dela dirudi» esaten du gasteiztarrek.

Hasiberriekiko mesfidantza hori ulergarria da Mendizabalen ustez. Filme bateko musika egiteak erantzunkizun handia suposatzen du Bingenen iritziz, «zuzendariak ezin dio musika edonori eskatu txapuza bat ateratzen bada arazo larria delako» azaltzen du.



Lanaren ikuspegitik emankorra den garai hau aprobetxatzen saiatuko den arren, zortea aldakorra dela uste du Bingenek: «Iaz antzerkigintzan 'Betizu' lanaren musika egin nuen baina zineman ezertxo ere ez; aurten, lan ugari izan dut eta datorren urtean lanik gabe egongo naiz, agian».

Ez dirudi arabarrak kezkatzeko arrazoirik duenik, aurten egin duen lanaren ondorioz, gero eta ezagunago bihurtu baita. Horrek Euskal Herriatik kanpo lan egiteko aukera ere eman dio, Mariano Barroso madrildarrak bere azken filmearen musika eskatu baitio.

Gustora agertzen da Bingen Mendizabal zinemagintzarako egin duen lanarekin eta zuzendari belaunaldi berriek musikari ematen dioten garrantzia azpimarratzen du. «Lehenengo zuzendari-rik gehienek zuzendu baino ez zuten egiten; oraingo gazte hauek berriz, filmearen prozesu guztia kontrolatzen dute eta musika grabazioa ikustea ere gustatzen zaie» azaltzen du. Horrela, bazterturik zeuden hainbat arlo aintzakotzat hartzen dira orain, filmearen musika, besteak beste.

Bingenek ondo ikusten du arlo guztiak kontrolpean izan nahi hori: «Batzutan

“Jotzea asko atsegin izan dut beti, 'Hertzainak'-ekin jotzea batez ere”



MOBILIARIO kide
apaindura

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

zure euskal LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
errikoia

“Musika aplikatua lan egiten duen musikagile asko dago Gasteizen”

zuzendariak nazkatzen zaitu baina filmearen onurako da bera bait da pelikularen ideia orokorra duena». Horregatik, zuzendariarekin hitz egitea garrantzitsua iruditzen zaio Bingeni «nahiz eta batzuetan eztabaiak sortu».

Ahal duen guztietan Correria kalean duen estudioan grabatzen du filmeetako musika Bingen Mendizabalek. Grabazio estudioa Oskorri taldeko kitarrajolearekin batera jarri zuen, Bixente Martinezekin batera. «Hemen grabatu dugu 'Alas de Mariposa', Alex de la Iglesiaren bideojolasaren musika eta Barrosoren filmearena ere; baina zaila denean, musikari askoren partaidetza behar denean edo, ezin izaten dugu hemen grabatu» argitzen digu Bingen Mendizabalek.

Bostgarren 'hertzaina'

Bingen Mendizabal 'euskal Rock Radikalaren' garaian deitu izan zen horretan hasi zen musikaren munduan. «Garai horretan oso maila oneko taldeak zeuden Gasteizen, kanpora ere askotan irteten ziren taldeak» gogora ekarri du Bingenek. Garai horren ondoren Gasteizen egiten den musika apur bat gelditu zela uste du musikagileak: «Dena den, Gasteizko talde berriei buruzko berri askorik ez dudala aitortu

behar dut, orain sorkuntza lanean buru belarri murgilduta nagoelako».

Musika aplikatuaren egoera, aldiz, hobeto ezagutzen du Bingen Mendizabalek eta Gasteizen musikagile asko daudela azaltzen du, «laburmetraietako musika, publizitatekoa... egiten duen jende asko dago» azpimarratzen du.

Sorkuntza lana egiteaz gain jotzea ere asko gustatzen zaiola ziurtatzen du Mendizabalek: «Jotzea beti gustatu

izan zait, 'Hertzainak' taldearekin jotzea, batez ere». Bingen 'Hertzainak' taldearen bostgarren kidea izan da taldea elkarrekin ibili zen azken garaietan, «eta aurretik ere zenbait kontzertutan taldearekin jotzen nuen» zehaztzen du.

“Hertzainak”-ekin jotzen hasi aurretik ere 'Nahiko' taldea eta beste zenbait kantarirekin ere aritu zen Bingen baina berak esaten duenez «'Hertzainak' izan da ibili naizen talderik garrantzitsuen, iraun zuen bitartean oso ondo egon zen». Gainera Bingen Mendizabalek taldearen jarraitzaile sutsua zela aitortzen du: «Beraiekin jotzen hasi aurretik ere asko atsegin nuen bere musika. Lehenengo kontzertutik jarraitu dudana taldea izan da»

Gogokoa izan arren Bingen Mendizabalek ez du orain jotzeko denborarik. «Orain dudana lanarekin ezin nuke lehen bezala talde batekin jotzen ibili, lan honek denbora asko hartzen bait dit» azaltzen du gasteiztarrek.

Lan eta lan dabilen arren ez digu aurrera begira esku tartean duenari buruzko ezer kontatu nahi izan, “proiekturen bat badaukatu baina oraindik guztik lotuta ez dudanez ezer esan aurretik itxoitea nahiago dut” esan digu agurtzean. □

“Oraingo zine zuzendari gazteek filmearen arlo guztiak kontrolatzen dituzte. Musika grabazioa ere zaintzen dute”



FLITON
FLITON
FLITON

FLITON
FLITON
FLITON

Barrancal, 20 (Plaza) • Barrenkalea, 20 / Tel. 14 68 43
01001 GASTEIZ



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

UMANDI

Arabako euskalgintzaren aintzindaria



A

ndoni Urrestarazu Landazabal, Umandiren izengoitiz ezaguna, Araia herrian jaio zen 1.902. urtean. Araian bertan hil da, azaroaren 21an, 91 urte zituelarik.

Andoni Urrestarazu: «Umandi»

Azaroaren 21ean hil zen Andoni Urrestarazu «Umandi» euskaltzale eta gramatikalaria 91 urte zituela. Hileta elizkizunak biharamunean egin ziren bere jaioterria zen Araia herrian.

Euskalari bezala bide luzea urratu du Umandik. Gaztetan euskara ikasteari ekin zion. Geroxeago, irakasle egin zen. Gerra garaian, Umandi gudari ibili zen eta Santoñan preso hartu zuten. Berrogeita hamarrek hamarkadan hasi zen liburuak argitaratzen, gramatikari buruzkoak, batik bat. Horrela, gerra ostean, gartzelatik aterata, aurreneko euskal gramatika sortu zuen eskolak egokiago eman asmoz. 1955ean argitara eman zen obra horrek «Bizkaiko aditz erak» izenburua hartu zuen. Lan hori oso lagungarria izan zitzaion orduko euskara ikasleei. Euskararen irakaskuntzaren bitartez, ordea, ez zuen inoiz txakur txikirik ere jaso, hasiera-hasieratik erabakia baitzuen eskolek eman ziezaizkieten sosei uko egitea. Adibide modura, japoniar eta amerikar zenbaiti, postaz, euskara irakatsi

ziren, inolako ordainik eskatu gabe, ez eta gutunen zigiluei zegokiena ere.

Diktadura garaian erbesteratu zen, 10 urtez Parisen eta 16 urtez Baionan bizi behar izan zuela. Orduan sortu zen gaur egun Andoni Urrestarazu bazter guztietan ezaguna egin duen izengoitia: Umandi. Izan ere, bere burua nolabait babestu beharrean zegoen garai horretan, polizia atzetik zebilkion eta. Aipatzekoa da ere, orduan aldizkari askotan kolaboratzailea eta Baionako «Irakintzaren» fundatzaile nagusia izan genuela arabarra. Era berean, 1962an Parisen «Euskal Kulturaren Alde» izenekoan idazkari izendatu zuten.

Guztira, hiru gramatika eta «Gentza bearrean» deritzon elaberria plazaratu ditu Umandik. Halere, burutzeke utzi du esku tartean zerabilen azken lana, hain zuzen ere, «Euskal gogo iztegi» izena hartuko zuen ideologi hiztegia.

Bere pentsamoldeari dagokionez, erdarakadak eta «H» letra arbuatzen


zituen neurri berean, euskal bertsoak eta kondaira zaharrak zein euskalkiak zituen maite Umandik.

Urrezko Dominaz saritu zuen Gasteiz hiriak bere lana. Duela hiru urte ere, bere jaioterrian, Araian, omenaldi bat egin zitzaion eta hor, Urrezko Orratza jasotzeaz gain, bertako «Semerik Gogokoen» izendatu zuten Umandi. Ildo horretatik, Umandi ikastolak ere bere eskerona agertu nahi izan zion Andoni Urrestarazuri, euskalari arabarrak zuen izengoitia ikastola horrek bere eginez.

Orain, aldiz, Arabako eta Euskal Herri osoko euskalgintzaren historian bere izena urrezko letrez idatzirik duen Umandi joan berri zaigu. Berak ereindako hazi emankorrek uzta oparoak sortuko al ditu!

Adiorik ez, eta bai gero arte, Andoni Urrestarazu «Umandi»! □

Berak esanak



Eginbide Nagusi (bere azken idazkia)

Gure ende'ria Euzkadi da: gure izkuntza euzkera da: ta euzkera dugu Euzkadi'ren gogo-biziari eusteko bide baka'ra. Ortarako, enurarik ez euzkera geron baitan eta geronengan bizi bea'r da, bere eginkizun eta elburua bete dezaken. Ondorioz, euzkaldun guzientzako eginbide bera ta aundia sortzen zaigu: euzkera ongienik ikasi, gure ezpañetan eten gabe erabili, orobat gure lumaetan, gai guzietarako bidetzat artu ta gure E'ri'aren bazte'r guztietano elerazi.'

O'ra euzkaldun guzientzat onartu ta betetzekoa dugun eginbide nagusia, orok naimen aundienaz norberarentzat artu bea'r duena. Ezinbestekoa da euzkera Euzkadi bizi dedin, auxa da buru guztietan sartu bea'r dan egi

aundia, iñork ukatu ezin dezakena. Beraz, E'ria benetan maite duenak argi, oso argi, ikusi bea'r du zer egin eta bete bea'r duen. Ezin diteke ori ez betetzeko sa'ri entzuten diran aitzakiak ontzat artu; aitzaki ta oztopo guzien aietik gure eginbidea da begiratu bea'r dana, guzien aldetik beteta izan dedin, bakoitzaren inda'rak eta almenal eldu ditezken ma'laraño: inda'r eta almen oyek ez dira, noski, guzientzat berdiñak eta o'rengatik eziña izango da guziak mail berberaraño eldu; baña iñor ezin gera diteke elburu ortarako bidean sartu gabe geratu. Eginbidea ororena dugu ta guzientzako berbera izan bea'r.

U'restarazu'tar Andoni

❑ «Araian ez zen euskararik hitzegiten nere haurtzaroan. Auzoan bai, Ziordian, hitzegiten zuten, baina Eginon galdurik zuten ordurako»

❑ «Espetxean lagun batek 'Los pintores de Vitoria' abestia kantatzen zigun, kalean egindako pintada ugariengatik»

❑ «Nere izena poliziaren fitxategian zegoen eta ez zen posible gramatika neure izenarekin argitaratzea. 'Umandi' hemengo mendi baten izena da, alde batetik, eta bestetik, hil zitzaidan anaia idazle batek erabiltzen zuen goitizena»

❑ «Goizeko 7etan jeikitzen naiz eta 9etako meza entzun ondoren etxean sartzen naiz gaua arte lan egiteko»

❑ «'Euskal Gogo Hiztegia' burutzeko Casares-en 'diccionario ideologiko' hartu dut oinarri, edo hobeto esan, eredu bezala»

❑ «Uste dut 300.000 fitxarekin lana bukatzeko moduan izango dudala. Dagoeneko Gasteizko etxean 2.500 kutxa ditut beteta»

hAurRAk

Ezetz asmatu...

ZER DELA eta zer dela
larrera joan
eta jan ez,
ibaira joan
eta edan ez.

zintzarria

ASTIRO eta bero
pasatzen naute
arropen mendiak oro
lautada bihurtu arte.

plantxa

ETXEZAIN txikia
loturik daramate,
gazte eta zaharrek
aldean daukate.

giltza

KANTATZEN badaki
eta mintzatzen ez
esproiak baditu
eta zaldizkoa izan ez.

otillara

ATORRA barnetik
haragia kanpotik.

kandela

MARI da
eta emakuma izan ez,
gorringoa du
eta arraultzik ez.

marigorringoa

EDATEN etengabe,
ez naiz mozkortzen;
jiraka etengabe,
ez naiz zorabiatzen.

errola

PRINTZEAK dauka
eta eskaleek ez,
txiroek badute
baina erregeek ez.

-i-

ABEL esaten didate
pertsona izan gabe,
gorria naizela diote
eta beltza izan naiteke.

abelgorria

ZALDIA da
eta itsasokoa.
Igartzeko
samurtxoa.

zalditarraina

DITAREA bezain txikia,
heriotza darama aldean.

bala

DAMA garaiak
hortz bakarra
eta gainera,
zintzilik darama.

kampala

GESALTZA

Orain bakardadean aurkitzen naizela,
nere hitzak haizeak eramaten ditu.

Musika goxo goxo entzuten da,
gogorra baina lasaia era berean.

Argiak ez du indar haundirik,
baina nere begirada urrunean galtzen da.

Loak ez nau hartzen gau triste honetan,
begiak gogoz itxi arren.

Oroimenak izango ote dira
esnatuta mantentzen nautenak?

Edo leihoaren kontra jotzen duten
ur tanta gogorrak?

Liburu bat bakarrik gaueko-mahai gainean,
ur botila lurrean botata.

Paretan, posterrak, gauean galtzen diren
irudiak ematen dute.

Eta nere buruan zu bakarrik aurkitzen
zaitut.

Asko izan dira zurekin igaro ditudan
momentoak.

Algara eta irribarrak nagusi izan dira
gure bihotz alaietan.

Baina malkoak ere ikusi ditugu elkar,
beti lagunak hitzekin lehortuak.

Eta orain nola ahaztuko zaitut
herri maitea.

Nola ahaztu Gesaltzako
zeru urdina.

Nola zure erreka ur garbiak.

Nola ahaztu hango jende jatorra.

Aitziber, nere herri
maitatuarentzat.
(Espejo baita)



ibUSGAR'i

t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoak, narruzko arropak,
berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea

Tfno: 13 18 55

01005 - GASTEIZ

Olentzeroari liburu bat?



Gabonak hurbil ditugu eta beti bezala urte sasoi honetako opariak eskatzeko ordua da. Jostailu, jantzi eta makinaren artean liburutxoak ere izaten du bere tokia. Hala ere Olentzeroak arazoak izaten ditu sarritan zein liburu oparitu erabakitzeke. Zein da ona? Nolakoa izango da hau? Entretenigarria al da horko hori?

Kasu askotan onena haurrari berari galdetzea izaten da, bere gustoko liburuak zeintzuk diren, nolako liburuak nahi dituen... baina hori ezin da egin beti. Beraz, ohar labur honetan liburuak aukeratzeko kontutan izan beharreko erizpide batzuk eman ondoren, gabonetan oparitzeko moduko liburu zerrenda bat emango dizuegu. □

Gabonetan oparitzeko liburuak

Nola aukeratu liburuak

- 1- KONTUTAN** izan haurraren gustoa (abentura, fantasia, jolasa, umorea,...).
- 2- ESTILO** horretako liburu ezberdinak begiratu (ez hartu ikusten duzun lehena, konparatu beste batzuekin)
- 3- JANARI** eta jantziekin egiten den bezala, kalitatea eta prezioa aztertu.
- 4- LIBURUA** barrutik ere aztertu; nola dagoen idatzita, ilustraziorik duen, letra txikiegi den...
- 5- BILDUMA** batekoa izatea edo argitaletxe konkretu batean egotea datu baliagarria izan arren, ez ahaztu liburu bakoitza autonomia dela, guztiak direla ezberdinak.
- 6- ZALANTZAREN** bat izanez gero dendariari galdetu, zure zerbitzuan daude.

lehenengo urteak

- **Babar saila.** J. Brunhoff, Alfaguara-Desclee de Brower.
- **Euskal Leiendak** (5 liburu), M. de Lezea-Asun Balzola, Erein.
- **Axut saila** (Euskal Herriko ipuinak, 12 liburu), Elkar

10 urtetik aurrera

- **Zer dela eta zer dela?** (Igarkizun bilduma), X. Etxaniz-A. Villate, Pamiela
- **Jolas egiteko ipuinak**, G. Rodari, Elkar
- **Asterix eta Tintin sailak**, Elkar
- **Ernioko Ziripot**, A. Olariaga-A. Hondartzabal, Erein

14 urtetik aurrera

- **Filipinetan bizi den idazlearen kontuak**, J. Iturralde, Pamiela.
- **Gazte hipokondriako baten egunkaria**, A. Macfarlane-A. McPherson, Elkar
- **Eskua bete izar**, R. Schami, Elkar
- **Borroka arroka**, M. Lopez, Erein
- **Ez ezazu sardinarik eskatu garaiz kanpo**, A. Martin-J. Ribera, Alfaguara-Desclee de Brower.

8 urtetik aurrera

- **Egun osorako poemak eta beste**, J. K. Igerabide, Pamiela
- **Gutun harrigarri bat**, Patxi Zubizarreta, Elkar
- **Katixa eta Kroko**, Txiliku, Elkar
- **Alex**, Mariasun Landa, Erein
- **Siberiako trenaren ipuin eta kankak saila** (Atxaga, M. Landa), Erein

12 urtetik aurrera

- **Tristuraren teoria**, F. Juaristi, Erein
- **Begi-niniaren poemak**, J.K. Igerabide, Erein
- **Madame Kontxexi-Urribe Brigada & Detektibe saila**, A. Lertxundi, Erein
- **Nikolas txiki saila**, Goscinnny-Sempe, Elkar

Guraso edo irakasleei oparitzeko

- **Perraulten ipuinak**, G. Gomezen edizioa, Pamiela
- **Matilda**, R. Dahl, Erein
- **Alice**, L. Carroll, M. Lopezen edizioa, Pamiela
- **Haur Folklorearen bilduma**, X. Etxaniz, Pamiela

den-dan
h a l t z a r i a k

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

ditare

MIHISEDENDA

UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



(*) Taldeak bigarren brasildar bat fitxatu berri du: Marzio Pereira Kloppe. 28 urte ditu eta Rio de Janeiroko selekzioa jokalaria izan da.

JAVIER BUENO



Atezaina
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 29 urte
Taldeohiak: Abetxuko, Alegria (futbol) eta Red Urgente (futbol-sala)

KOLDO LOPEZ de SUBIJANA



Atezaina
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 22 urte
Taldeohiak: Maraion Kirolak eta Gasteiz Txiki (futbol-sala)

IÑAKI LOPEZ de SUSO



Atzelaria
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 23 urte
Taldean 2. denboraldia betetzen du.

DESIDERIO VICENTE



Atzelaria
Jaioterria: Bilbo
Adina: 23 urte
Taldeohiak: Ariznabarra, Aurrera eta San Viator (futbol); Gomar (futbol-sala)

JESUS MUÑOZ ARIZA



Hegalekoa
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 21 urte
Aurtengoa bere lehen denboraldia da taldean.

ALBERTO RUIZ de GAUNA



Hegalekoa
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 22 urte
Taldeko kapitaina

KOLDO ANDIKOETXEA



Hegalekoa
Jaioterria: Bilbo
Adina: 23 urte
Taldeohiak: Aurrera, Athletic de Bilbao, Mirandes, Torrelavega eta Haro (futbol)

RAUL RUIZ de AZUA



Hegalekoa
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 23 urte
Taldeohiak: Calasanz, D. Alaves eta Alegria (futbol)

J.C. MEZQUITA «KAKA»



Pibota
Jaioterria: Rio de Janeiro
Adina: 27 urte
Taldeohiak: Olana, Canto do Rio eta San Jose (futbol); Havá eta Enbaixadores (futbol-sala)

J.I. FERNANDEZ de VIANA



Pibota
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 25 urte
Taldeohiak: Prado eta D. Alaves (futbol); Jolma, Valentinos eta Comercial de Pinturas (futbol-sala)

OSKAR FERNANDEZ JAIME



Pibota
Jaioterria: Gasteiz
Adina: 26 urte
Taldeohiak: D. Alaves, Mirandes eta Alegria (futbol)

Entrenatzailea: Marcos Vinicius Pereira da Silva. Rio de Janeiroan jaio zen orain 24 urte. Judimendi auzoko talde honetara 1991an heldu zen. Brasilen profesionala izan zen eta futbol-sala talde ezberdinetan jokatu zuen, besteak beste Canto do Rio, Grafán Country, Bradesco eta Mavá.

Luminosos Regui: Futbola eta sanba bat eginda



Luminosos Regui-ren eskutik modan dagoen kirola heldu da Gasteizera. Aurrendenboraldiaren lehen entrenamenduetan jokalariek, entrenatzaileak eta zuzendaritzak zilarrezko mailan arituko zirelako ustearekin ekin zioten lanari. Hala ere, ezustekoan ohorezko mailan leku bat lortu zuten Ceuta taldearen dirurik eza zela eta. Kategoria hori ez da erronka erraza gasteiztarrentzat. Aurrekontu handiak, puntako jokalaria, teknika soberan duten brasildarrak... Alabaina, gasteiztarrez beteriko talde honetan diruak eta azpiegiturek badute ordezkorik, gogoia eta ilusioa.

**GILTZA
ARBA**
ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, ateak kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

AZOKA

deportivos

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Mailari eustea helburu



 **Kantxan bere legea ezartzen duen brasildar bat behar dugu.** ”

Oskar Fernandez Jaime • Jokalaria

eskaini, eta bidali zuten. Taldeko arduradunak jokalaria on bat izateko ahalegin ekonomikoa egin beharraz ohartu, eta Brasilgo merkatua miatzen ari ziren. Rio de Janeiro aurkitu zuten taldearen izarra izan behar duena, bere izena, Marzio Pereira Kloppe. Oskar Fernandez Jaime jokalaria beharrezkotzat jotzen du taldekide berri hori etortzea, «kantxan bere legea ezartzen duen jokalaria bat behar dugu. Ardura hartzea axola ez zaien horietakoa». Marcos Pereira entrenatzaileak hau entzutean gaineratzen du, «futbol-sala xakea bezalakoa da, fitxak ondo mugitu behar dira. Fitxak ibiltzen diren bitartean, baloia nor bere babespean egongo da».

Gasteizen hotza, Brasilen bero

Gaurdaino Luminosos Reguik Mendizorrotzan puntu bat besterik ez du ateratzea lortu, baina, hala eta guztiz ere, esan beharra dago zalego gasteiztarrek ez diola Polikiroldegira joateari utzi. Interviu Boomerang aurkako norgehiagokan 2000 lagun inguru elkartu ziren, Gasteizen futbol-sala partidu bat ikusteko inoiz lortu den ikusle kopuru handiena, zalantzarik gabe. Horri buruz taldeak duen iritzia Raul Ruiz de Azuak

C.D. Lehoi Judimendi auzoan sortu zen orain dela 15 urte.

Talde hau futbol-salan orain arte arabarraren aintzindaria bada ere, ez ziren asko ezagutzen zutenak. Aurten Luminosos Reguiren laguntzaz desafio handi bati aurre egin behar dio, eta hasiera ez da ona izan. Zortzi partidu jokatu behar izan ditu Luminosos Reguik puntu bat lortzeko. Mendizorrotzako Polikiroldegira hurbiltzen den zale bat baino gehiago urduri jartzen hasia da. Agian ez dira konturatu kantxaren bestaldean Interviu Boomerang, Bartzelona edo Marsanz Torrejón egon direla, edota Luminosos Reguientzat benetazko denboraldia jeisteko play-off-etan hasten dela. Udan inor gutxi espero zuen ohorezko mailan aritzea, eta guztiontzat ezusteko galanta izan zen.

Taldearen jokalaria den Raul Ruiz de Azuak argi dauka ekipoaren helburua, «guk mailari eutsi behar diogu. Otsailetik aurrera ondo egon beharko dugu».

Mendizorrotzan INTERVIU taldearen aurkako norgehiagokan 2.000 lagun inguru elkartu ziren

Futbol-salan brasildarrak dira nagusi, eta oraingoz ia ihardunaldi guztietan talde gasteiztarrek herrialde horretako jokalaria bakar batekin jokatu beharrean ibili da. Zuzendaritzak Joao Carlos angolarra ekarri zuen, baina ez zituen berarengandik espero ziren emaitzak

MUGA

MENDIA, ESKALADA ETA BIDALETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.

Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ

Noresta

Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑA

Muluma

MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

laburtzen du, «jendearen aldetik, erantzuna oso positiboa izan da». Hala ere, jakina da gasteiztarrok ez garela brasildarrak, haiek marakak eskuan oihuka diraute partidu osoan, eta geure kasuan, momentuz ez du ematen hori Mendizorrotzako harmailetan gertatuko denik. Marcos Pereira brasildarrak hau du faltan, «hemen zale-goia ezberdina da. Jokaldi on bat egiten baduzu, txalo sorta bat eskaintzen dizute, baina noski eserita». Berak zalegoaren zati txiki baten jarrera ere kritikatzeko du, «batzu taldearen lana errefusatzeko hasi dira. Horiei futbol-salaz ezer gutxi dakitela esango nieke». Gai honi amaiera emateko Oskar Fernandez Jaimek gaineratzen du, «geuk zalegoari pozik egoteko arrazoia eman behar diogu, orduan gurekin bat egingo dute».

Gasteiztarrek ia sosik ez

Ohorezko mailako talde guztiak erabat profesionalak ditugu. Salbuespen bakarrik Luminosos Regui eta beste ekipo bat dira. Talde gasteiztarrean Kaka eta Marzio jokalariek zein Marcos Pereira entrenatzaileak bakarrik jasotzen dute soldata. Beste guztiek diru kopuru sinboliko bat baino ez dute sakeleratzen. Asteazkenaldiz entrenatzen dute eta egin beharreko bidaiak oso luzeak izaten dira. Haiei ez zaie hori inporta, baina inork ez dezan pentsatu horrek dirua ematen duenik, aurrekontua oso txikia baita. Oskar pibotak dioten bezalaxe, «orain arte Gasteizen futbol-sala inork ez du haintzakotzat hartu. Gu geuk futbol-etik gatzoz». Taldeak mailari eustea du helburu, eta baikor azaltzen dira desafioaren aurrean. Raulek honela azaltzen du, «zenbait partidutan ez dugu zorte onik izan, esaterako, Torrejonen azkenengo segunduetan galdu genuen. Inork ez digu gauza handirik erakutsi, eta guk gorantz joan behar dugu».

Helburu hori betetzea Gasteizko kirol zalegoarentzat oso garrantzitsua izango litzateke, atzetik datozen umeei ispilu bat izango zutelako. Datorren urtean egoera guztiz bestelakoa izatea nahi genuke. Haiek, behinik behin, arrakastaz ziur dira, eta ohorezko mailan euskaldunok dugun futbol-sala talde bakarra izanik, GEU GASTEIZaren partetik txalo bero bat bidali nahi diogu. □

 **Inork ez digu gauza handirik erakutsi. Taldeak gorantz egin behar du.**

Raul Ruiz de Azua • Jokalaria



MIKO
izozkiak

**Cervecería
Alemana**

SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

Eta Durangorako zer ...made in Gasteiz?



Orri hauetantxe komentatzen genuen duela urtebete Gasteizen egindako liburu ugari zegoela iragarrita Durangoko azokarako. Askok uste baino gehiago, esaten genuen artikulua hartan, eta horrelaxe da.

Orain urtebete plazaratu zen lehenengo aldiz Garziarena izeneko aldizkaria, eta urtean zehar hileroko —gutxi gora behera— ateratu dute Eman Bakia Baita taldekoek Gasteiztik Euskal Herrira zabaltzen den aldizkaria.

Baina urtean zehar Gasteiztarrok nobedade interesgarriak plazaratu ditugu euskal letretan; hor dago Nandusen «**Ilargia lagun beti helgolderantz**» bi-daia liburu arrakastatsua edo Rikardo Arregik poesiaren munduan egindako inkurtsioa: «**Hari hauskorak**».

Itzulpengintzan ere Koldo Bigurik euskaratutako «**Erromako emakumea**» (Moraviak idatzia) edo «**Urtaroak hirian**» (Calvinorena) klasiko moderno ondoan aurki dezakegu Patxi Zubizarretak «**Ali Baba eta berrogei lapurrak**» liburuari buruz egindako edizioa.

Nobedadeak

Baina Durangorako zer? Zein liburu berri eskaintzen dugu hemendik? Egia esan, panorama ikusita, argi eta garbi dago haur eta gazte literatura alde batetik, eta itzulpengintza bestetik, direla Gasteizko idazleek eginiko lanak.

Lehenengo arloari dagokionez, hiru lan ditugu Gasteizen sortuak: India eta Nepal inguruan kokaturik dagoen ipuin xarmangarri bat Patxi Zubizarretaren eskutik: Erein argitaletxeak plazaratuko duen «**Iantzi**». Ikertzaile bat urruneko paraje haietan ibiliko da lanean, desagerteta baten inguruan. Ipuinak Patxi Zubizarretaren aurrekoen estiloa du: irakurterreza eta ikutu poetikoak.

Pamiela argitaletxean daude gainerako sor lanak. Xabier Etxanizek, aldizkari honetako zenbait aletan ikusi eta gozatu ditugun igarkizunen egileak, beste igarkizun bilduma bat prestatu du: «**Zer dela eta zer dela?**» Liburu gasteiztarra

ere dugun Agurtzane Villateren ilustrazio ugariz apaindurik dago. Beraz, igarkizunekin jolastu nahi duenak badaki non aurkitu beste bilduma berri bat.

Eta liburu serioagoak nahi dituenak Manu Lopezen «**Jaun agurgarria**» irakurtzeko parada izango du. «**Borroka arroka**» liburuan bezala, egileak gizarte honetako arazoak eta problematika ikutzen ditu liburuan. «Jaun agurgarria» eskutitz luze bat da, gaztetxo batek idatzitako eskutitza. Bertan bere bizitzan jazotako zenbait gertaeraren berri ematen digu. Liburua entretenigarria da eta gaurkotasun handikoa.

Itzulpenak

Itzulpenen arloan Genaro Gomezek egindako «**Perraulten ipuinak**» aipatu behar dugu lehenbizi. Liburu hau iazko zegoen iragarrita, baina, azkenean, urtebete beranduago bada ere, kalean dugu. Nork ez ditu ezagutzen Txanogorritxu, edo Bizar Urdin, Katu botaduna, eta abar? Genaro Gomezek itzulpen zaindu eta

egokia egiteaz gain, liburuari zenbait ohar eta anexo interesgarria gehitu die, baita Perraulten bizitzari buruzko zenbait datu. Edizioari dagokionez, jatorrizko ilustrazioak mantentzeak eta Pamiela argitaletxeko estiloak oso emaitza erakargarri lortu dute.

Argitaletxe berean eta Emak Bakia Baita klubarekin batera plazaratzen den



bilduman Maria Garikanok euskaratutako nobela interesgarri bat dugu, Amos Tutuola idazle nigeriarraren «**Mozkor bat Sasirik-Sasi**» idazlan ezaguna, hain zuzen.

Eta azkenik Gerardo Markuletaren itzulpen bat dugu haur literaturan, Sid Fleischman idazlearen «Hemen da berriro McBroomen» Alfaguara argitaletxean. Etxe bera zenbait itzulpen berrikusi edo berregiten ari denez, aldizkari honetako kolaboratzailea den Mikel Garmendiaren itzulpen berri bat ere, plazaratuko da: R. Dahl idazlearen «**Azeri miresgarria**», hain zuzen. Alde horretatik, zoriundu beharko genuke argitaletxea erabaki hori hartu dutelako. Ea oraingoak denon gustoko itzulpenak diren.

Ziur gaude libururen bat edo beste ahaztu zaigula eta, Durango pasa ondoren ere, gure hirian egindako liburu gehiago plazaratuko dela, eta ez gutxi, gainera. Bien bitartean irakurri nahi duenak badauka non aukeratu. □



eta gainera...

ZER DELA ETA ZER DELA? (Igarkizunak) X. Etxaniz
JAUN AGURGARRIA, M. Lopez Gaseni

ALI BABA ETA BERROGEI LAPURRAK. P Zubizarretaren edizioa

...

KALITATEZKO LITERATURA



PAMIELA

ERAKUSKETAK



Luis de Ajuria Aretoan (General Alava 7).
Abenduaren 15a arte. URIARTE. Pintura. 17tik 30ra
JUAN SANCHEZ Pintura Naif.

San Prudentzio Aretoan (San Prudentzio 30).
Abenduaren 17tik aurrera INKISIZIOA

Pajarita Aretoan. (Kutxilleria kalea, 22)
Abenduaren 15a arte CHACON-PEDROSA. Irudiak.
17tik 30ra Argazki-erakusketa. ARABAKO NATURA

Exposiciones Aretoa (San Prudentzio 22).
Abenduaren 12a arte: INSEKTOEN MUNDU
MIRESGARRIA. 15etik 30ra JAVIER LOPEZ. Akuarelak.

Araba Aretoan: (Dendaraba).

Leioako Fakultateko ikasleen erakusketa

Ur-biltegi zaharra: (Landatxoko gaina).
Abenduaren 20 arte :JOSETXO AGIRRE. Eskultura

Arte Rubens: (Manuel Iradier 9-A).
10tik aurrera: BERNARD PETIT. Teknika mistoa

CARUSO kafetegia: (Enrike Eguren, 9).
ANA MONTOYA Inpresionismoa

Traiekto Galeria: (Ramiro de Maeztu 10).
JUAN CARLOS MEANA. Denbora eta memoria

Villa Suso Jauregia:
17tik 22ra. Euskal Herriko artista gorren I Erakusketa

NH Canciller Ayala Aretoa:
9tik 26ra GRESOL Ezberdintasunarekin Jolasean

Olagibel Aretoa: (Enparantza berria)
15tik 30ra. EUSKADI IMAGINATZEN.

Lourdes Ugarabe: (Arkupeak 7)
15a arte GABRIEL RAMOS URANGA. 17tik aurrera JUAN
MIEG

Nazioarteko jaialdia

TXONTXON
GILOAK



«Nahiko»
Gorakada taldea

Abenduak 5 (Principal
Antzokian) • 6,30etan
Abenduak 6 (Araba aretoan)
eta 7 (Kultur Etxean) • 7,30etan

Abenduak 8 (Principal
Antzokian) 6,30etan

Abenduak 12 (Principal
Antzokian) 6,30etan

Abenduak 13 (Araba Aretoan),
17 (Kultur etxean) eta 18 (Beñat
Etxeparen) • 7,30etan

Abenduak 21 (Aritzabarrako
gizarte etxean) • 7,30etan

Abenduak 22 (Beñat Etxeparen
7,30etan

Abenduak 23 (Araba Aretoan)
7,30etan

Abenduak 24 (Lakua-Arriagako
gizarte etxean) • 7,30etan

Abenduak 30 (Principal
Antzokian) • 6,30etan

«Melodia para una noche
de 3 lunas»

F. de Fantasia

«Otro Mundo»

La Pupa taldea

«Lam eta Loeran»
Taun -Taun

«La Picara revuelta»
Panta Rhei

«Jaun de Altzate»
Panta Rhei

«Maria Sargentoren
ipuiak»
Kili - kolo

«Ama Lur»
Panta Rhei

«Extra Super Maxi Show»
Teatro Negro de Zilina



EUSKARAZKO
MEZAK

Larunbatetan:

6,30etan El Pilar Elizan
7,30etan Erreparadoretan

Igandeetan:

11etan Estibalitzen (ele bietan)
11.30etan Jesus Langile Elizan
12etan Erreparadoretan

GASTEIZ

GASTEIZ

**ALISAS
TABERNA**

**EZ DAGO
PINTXORIK
KUTXI • GASTEIZ**



**ESPERANTO
Ikastaroa
trinkoa**

Hasiera mailatik
Abenduaren 4-5-6-
7 eta 8. ZARA UTZEN

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)



LARRUKI
Larruaren
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

IDAZTEKO PREST?



Laugarren ipuin lehiaketa

Arabako ikastetxeetako haurrek (5-14 urte bitartekoak) esku har dezakete.

Lehiaketa bi multzotan egingo da:

5-9 urte

bitartekoak:

Gaia:

Hatzamar batean

begi bat atera zaizu...

5-9 urte

bitartekoak:

Gaia:

Telebistarik gabeko

mundua

Lanak

gutunazal baten barruan bidali itzazazu

Abenduaren 17a baino lehen.

Informazio
gehiago nahi

izanez gero

edo lanak

bidaltzeko:

Bagare
EUSKAL TOKIA
Kutxileria 62
01001 Gasteiz

HONTZA

Gazte-musika

Sociedad Alkoholika

Bigarren LP-a kalean



lehendabiziko aukera. Iaster Euskal Herria osoa izango da lekukoa, ondoren Estatuari ekiteko garaia iritsiko da.

Harrigarria talde hau lortzen ari den arrakasta, bultzapen txikia jaso arren. Ez dute «aitabitxi» ospetsurik izan, ez dira ikusentzule kopuru handiko telebista saioetan. Hala eta guztiz ere, gero eta neska-mutil gehiago hurbiltzen da SA-ren soinu latzetara. Non dago sekretua?. Taldekideek aitortzen ziguten batzutan gaitza dutela jakitea zergatik diren hainbat jenderen gustokoak; halere, garbi dago ez dutela sekreturik, ezta edabe mirakulutsurik ere. Emaizta miresgarri hau urte askoren lanaren ondorioa baino ez da, entzulegoa urria izan arren kontzertu ugari zertzearen efektua. Bizkor edatu da, ahoz aho, SA taldearen xarman-tasun zorrotza. Hortik aurrera estraineko maketa ailegatu... Geldiezinak!

Gaur, eta ez badituzu oraindik eza-gutzen, «Y ese que tanto habla...» LP-arekin gozatzeko garaia duzu. «Abububu» kanta alaiarekin, «Jaulas de Tierra», «Ariel Ultra», «Síndrome del Norte» abesti mingotsak, edota diska horretan agertzen den edozein soinurekin. Berrogei minutu bizi SA-rekin. □

Joxemari/Txabi Arnal Gil

«Y ese que tanto habla está totalmente hueco. Ya sabéis que el cántaro vacío es el que más suena». Bi esaldi hauekin aurkezten zuten SA taldearen bost mutilek bere lan berria, izenburu honekin hain zuzen, Faxismoaren kontrako lana, hamabost abesti. Arin eta gogorak, haien jarraitzaileek espero zuten bezalaxe. Soinu garbiagoa grabaketa honetakoa, ideia berriak, hala ere, hasierako eredu musikalaria eusten dio taldeak.

Europar zehar gauzatutako biratik itzuliberriak diren hauek ez dute atsedetik: etxean berriro eta lanari ekin. Orain kanta berriak zabaltzeko garaia heldu da. Gasteizko Gaztetxean izan genuen lan bero hau dastatzeko

MUSIKA

10, ostirala • Udal Banda

San Miguel Elizan
8,30etan

11, larunbata • Euskadiko orkestra Sinfonikoa

Principal Antzokian
8,30etan

16, osteguna • Anatol Ugorski. Pianoa

Principal Antzokian
8,30etan

17, ostirala • Euskadiko orkestra Sinfonikoa

Principal Antzokian
7,45etan

19, igandea • Udal banda, Samaniego eskolania eta Araba Abesbatza

Principal Antzokian
8,30etan

GASTEIZ

Chimbo Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

“UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA


Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

DENBORAPASA



ZE HARRETARA

1-Arabako herria. Sartzeko.
2-Dardak jaurtitzeko. Otsoa.
3-Edari. Ba. Bokak.
4-Herri-hizkeran: dauzkat.
Partido Popularra. 5-Ogia egiten duena. Zazpi hitzaren kontsonanteak. Lehena eta bigarrena. 6-Kontsonante. (Ald.) Arrazoi, zergati. Ez eta. 7-Ikatza egiten den tokia (pl.) 8-Bokalak. Garbitu. 9- Kanpo. Trotean. 10-Txori-mota. Boa hitzaren bokalak. Lehena.

GOITIK BEHERA

1-Alabantzak. 2-Emeak ez. Etxeko abere. 3-Ezetzak. Kontsonantea. 4-Dauka. (Ald.) elementu kimiko. Aditz-marka. 5. Bokak. Baldintza-aurrizkia. (Ald.) Arabako mendi bat. 6. Neska-izena. Zoro. 7-(Ald.) Dauka. Kamioi-marka. 8-Sorgin-hizkeran ogia. 8-Txerto. 9-Listu. Arabako barazki. 10-Eusko Abertzale Ekintza. Siplea, soila.

Erantzunak

Oskar BI



IEROGRIFIKOA



Eta eguraldia, zer moduz?



**JATETXE
ERRETEGIA**

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Lehena...

BARAZKI BUDINA

Osagaiak:

- Arraultzeak. 8 unitate
- Esnegaina. Litro eta erdi
- Gatza
- Piperrauts zuria
- Barazkiak: azenarioa, porrua, lekak, ilarak,...
- Gurina
- Ogi birrindua



Nola egin:

Barazki guztiak banan bana egosi ur eta gatza erabiliz. Ondoren, luzetara moztu.

Arraultzeak eta esnegaina nahastu eta ondu. Bitartean, Budin-moldea gurinez igurtziko dugu eta ogi birrunduaz hautsezatu.

Nahasketa gehitu pixka bat eta azenario xerratua ipini. Beste krema pixka bat eta berriro beste barazki bat. Horrela krema bukatu arte. Azken kapa krema izan behar da.

Labea aurrez berotua egogno da (180°C) eta Maribainutan utziko dugu ordu eta laurden

...bigarrena...

OILASKOA BARATXURITARA

Osagaiak:

- Oilasko zatitua
- Gatza.
- Piperrauts txuria
- Olioia.
- Baratxuria
- Perexila.



Nola egin:

Oilaskoa garbitu eta zati txikitik zatitu. Ondu eta piperrauts. Zerbitzatu baina apurtxo bat lehenago frijituko dugu.

Oliba oliotan baratxuriak sueztituko dugu. Sutatik kanpo perexila gehitu. Oilaskoa erreta dugunean baratxuriak eta perexilak gehitu, guztia ongi nahastuz.

...eta azkenburukoa.

ARROZESNEA

Nola egin:

Kazola batean esnea, kanela abarrak eta limoiazalarekin egosten ipini. Beste ontzi batean ura jarri. Irakiten hasten denean arroz gehitu (2 minutuz utzi egosten). Ondoren, ur hotzetan freskatu.

Esnea irekiten duenean arroz gehitu eta noizean behin zurezko gailareaz mugitu.

Arrozari egosteko gutxi falta zaionean azukrea gehitu. Guztia ongi mugitu eta 5-6 minutu gehiago eduki. Ondoren, kaikueta zerbitzatu. Hotza dagoe-nean kanela ahutsa gehitu

Osagaiak:

- litro bat esne
- 150 gramo arroza
- 100 gramo azukrea
- Kanela abarrean
- Limoi azala
- Kanela hautsa



Mireia Agirre



Bacalao Giraldo

• Egunero makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatura - Zaldiaran - Gasteiz







AZKARRA, ARGIA, MALGUA.

Ez gaitezen engaina, *Dino*. Zu ez zaude XX. mendean bizitzeko egina*. Gure mundu honek erantzun bizkorrak, lehiakorrak eta moldaerrazak eskatzen ditu. Horregatik sortu ziren herri komunikabideak, haundi-maundiak astunak, motelak eta garestiak direlako. Eta inoiz ez direlako gure herrietan gertatzen denaz gehiegi arduratu.

Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak egin ditugu Arrasaten. Pozik gaude. Bost urtetan herrietako aldizkariak, irriatiak eta telebistak ugaltu eta finkatu direlako. Eta benetan merezi izan duelako. Horregatik, ARRASATE KOMUNIKABIDEAK elkartearen izenean eskerrik beroenak babesa, laguntza eta partehartzea eskaini duten guztiei.

Eskerrik asko zuei!

* Jakin ezazu, halere, azken aldi honetan museoetan baino zinean askoz ere maitagarriagoa agertzen zarela.

